



ONDARROAKO UDALA

## KIROL BATZORDEAREN BILERAKO AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2018/1  
**Eguna:** 2018-09-19  
**Ordua:** 19:00  
**Tokia:** Udaletxeko 2. Pisuko batzar gela

### Bertaratuak

Unai Barrenetxea, kirol batzordeburua  
Adrian Osa, E.A.J.ko ordezkaria  
Mikel Aramaio, Bilduko ordezkaria  
Ama Lur Bedialauneta, Arrigorri Itsas Arrantza Elkarteko ordezkaria  
Eladino Gonzalez, Aurrera K.E. / C.D. Aurrerako ordezkaria  
Mila Rodriguez, Udal kiroldegiko zuzendaria  
Gorka Elordi, Ondarroa Arraun Elkarteko ordezkaria  
Jose Ramon Osa Etxaburu, idazkaria

### Bertaratu ez direnak

Asoc. Inmigrantes Senegaleses de Ondarroako ordezkaria  
Asoc, Senegaleses Pueblao de Bassoul en Euskadiko ordezkaria  
Aurrera Geuria Txirrindu Taldeko ordezkaria  
Artibai Judo Taldeko ordezkaria  
Ondarru Igeri Taldeko ordezkaria  
Tontorramendi Aurrera Mendi Taldeko ordezkaria  
Egunsentia Koop. E.ko ordezkaria  
Koaxi Triatloi Taldeko ordezkaria  
Eskilantzarri elkarteko ordezkaria  
Orkatzen Peñako ordezkaria  
Ondarroako Atletismo klubeko ordezkaria  
Ondarroako Pala Taldeko ordezkaria  
Ondarroako Urpeko Elkarteko ordezkaria

### Aztergaiak

1. 2017ko abenduaren 20ko aktaren onespena, hala badagokio.
2. 2017ko dirulaguntza justifikazioen eta 2018ko dirulaguntza deialdiaren egoerak.
3. Udal kiroldegian jarriko den "vending" makinaren kudeaketa.
4. 2017ko Kirol Sariak.
5. Eskaerak eta galderak.

### Esan-eginak eta erabakiak

1. 2017ko abenduaren 20ko aktaren onespena, hala badagokio.

Aipatu akta onartu egin da aho batez.

2. 2017ko dirulaguntza justifikazioen eta 2018ko dirulaguntza deialdiaren egoerak.



## ONDARROAKO UDALA

2017ko dirulaguntzen justifikazioei buruz idazkariak azaldu du ondorengo taldeek aurkeztutako justifikazioak aztertu dituela eta ontzat eman dituela: Ondarroa Arraun Elkarte, Artibai Judo Taldea, Ager Solabarrieta eta Arrigorri Itsas Arrantza Elkarte.

Ontzat eman ondoren Udal kontuhartzaitzara pasatu dituela fiskalizatzeko (Arraun eta Artibai 2018ko ekainaren 1ean, Arrigorri 2018ko abuztuaren 23an eta Ager gaurko egunean) eta oraindik ez dutela fiskalizatu.

2018ko dirulagunza deialdiari buruz kirol batzordeburuak esan du datorren astean deialdia prest izatea espero duela.

Esan du baita ere saka egingo diolo sakatu behar denari tramitazioak arintzeko.

### 3. Udal kiroldegian jarriko den “vending” makinaren kudeaketa.

Udal kiroldegiko zuzendariak azaldu du aspalditik dabilzala vending makina bat kiroldegian jartzeko asmoarekin. Euren asmoa dela kiroldegia erabiltzen duen talderen batek kudeatzea aipatu makina. Udalak espazioa eta argindarra jarriko lituzkeela eta prest dagoen taldeak beste guztia egin beharko lukeela.

Asmo hau gauzatzea, berak pentsatzen zuen baino zailagoa dela, fiskalizazioa pasatzeko txosten berriak egin beharko dituela eta abar.

### 4. 2017ko Kirol Sariak.

Batzordeburuak esan du 2016ko kirol gala egin barik laga zela diru arazoak egon zirelako, baina ikusirik aurten badagoela dirua, 2016ko eta 2017ko galak batera egitea urte amaieran.

2017ko kirol sarietarako kandidaturak aurkezteko epea urriaren 5a izango dela esan du batzordeburuak.

### 5. Eskaerak eta galderak

Ondarroa Arraun Elkarteko ordezkariak galdetu du ea noiz arte egon behar diren zain 2017ko dirulaguntzen justifikazioen fiskalizazioa egiteko.

Batzordeburuak erantzun dio sakadatu bat egingo diola Udal kontuhartzaileari tramitazioa arintzeko.

Udal kiroldegiko zuzendariak esan du kiroldegiko instalazioak erabiltzeko bete beharreko orria bidali diela talde erabiltzaileei eta gehienak erantzun dutela. Kiroldegiko instalazioen erabilerari buruzko azalpen batzuk ere eman ditu.

Ondoren batzarra amaitutzat eman du batzordeburuak.

  
Jose Ramon Osa Etxaburu  
Idazkaria

O.e.  
Unai Barrenetxea Gurrutxaga  
Kirol batzordeburua  
